

## **SAIOAREN AMAIERA: ONDORIOAK DENEN AURREAN AURKEZTEA**

Lan-mahai bakoitzean ateratako eta bileraren azken zatian azaldutako ondorioen laburpen bat jasotzen da atal honetan:

### **1. mahaia. Bizikleta bidezko mugikortasuna eta aparkamendua**

---

Bizikleta bidezko mugikortasunari dagokionez, bi egoera nagusi proposatzen dira 2030erako: batetik, elkarri lotuta egongo diren bizikletentzako bideen sare bat nahi dute parte-hartzaileek. Bestetik, orografia arazoak gainditzeko, bizikleta elektrikoa erabiltzeko aukera aipatzen dute. Helburu horiek erdiesteko, herritarrek bideak eta horiei lotutako beste azpiegitura batzuk (aparkalekuak, besteak beste) eraikitzeko beharra ikusten dute.

Aldiz, aparkamenduari lotuta, 2030erako ikusiko ez diren aparkaleku gehiago egotea lortu nahi dute, eta aparkalekuak lurpean egitea da horretarako aukera nagusia. Halaber, ibilgailu pribatuak hirian sartzea ekidingo duten disuasio-aparkalekuen sare bat sortzeko beharra azpimarratzen dute. Aparkaleku horiek, emakumeentzat seguruak izateaz batera, garraio-bide publikoekin ondo konektatuta egon behar dute.

### **2. mahaia. Garraio publikoa eta ibilgailu pribatua**

---

2030ean, garraio-bideen, ordutegien, informazioaren eta ibilbideen arteko koordinazioa izango dira Bilboko garraio publikoaren ezaugarri nagusiak. Garraio-aldaketa guztiak era eroso eta merkean egin ahal izango dira, txartel berarekin. Auzoak elkarrekin oso ondo komunikatuta egongo dira, erdigunetik igaro beharrik gabe, eta garraio-bide publikoek ez dute isuri kutsagarririk igorriko.

Ibilgailu pribatuaren erabilera, berriz, minimora jaitsiko da 2030erako, eta nahitaezko kasuetara mugatuko da. Gainera, ibilgailu pribatu guztiak ekologikoak izango dira, lur azpitik zirkulatuko dute eta lur azpian aparkatuko dira. Kanpoko

pertsonak garraio publikoarekin konektatutako disuasio-aparkaleku seguruak izango dituzte.

### 3. mahaia. Bide-segurtasuna eta ingurumena

---

2030era begira, bide-segurtasuna erabatekoa izatea nahi dute parte-hartzaileek, ibilgailuentzako zirkulazio-abiadura mugatuarekin eta motordun ibilgailu gutxiarekin, oinezkoak arriskurik gabe joan ahal izan daitezen leku batetik bestera.

Ingurumenari dagokionez, isuririk gabeko ibilgailuak nahi dituzte zirkulaziorako, energia-iturri berriztagarri eta ez kutsagarriak darabiltzatenak.

### 4. mahaia. Oinezkoen mugikortasuna eta zamalanak

---

2030erako, Bilbon oztopo arkitektonikorik ez egotea nahi dute parte-hartzaileek, paseatzeko leku atsegina izatea eta zirkulazioak traba eta arriskurik ez eragitea. Aldirietako auzoetan bizi diren pertsonen bizitza erraztuko duten garraio bertikalerako sistema ugari egongo dira. Hori guztia zirkulazioak ingurumenean eragiten duen kutsadurarik gabeko hiri batean.

Zamalanetarako guneei dagokienez, 2030ean, Bilbon, herritar guztiek errespetatuko dituzte; ez dute gune horien erabilera okerrik egingo, eta, beraz, ez da leku horiek zaindu beharrik egongo. Gainera, ibilgailuak erdigunera iristea optimizatuko duten gune logistikoak egongo dira hiriaren kanpoaldean.